

## ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO ARRUNT hau aurkezten dio Udaltzari, Loiolako Erriberako zuzkidura-apartamentuen eraikinari buruzkoa, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

## JUSTIFIKAZIOA

Loiolako erriberetan gazteentzako eta adinekoentzako zuzkidurako apartamentu-dorreak eraikitzeari buruzko eztabaida urtarrileko osoko bilkuran joratu zen. Baina polemika eta haserrea handiagoak dira auzotarren artean.

Gustukoa ez den proiektu bat da, Loiolako Erriberako Gizarte Segurantzaren biribilgunearen eta Donostiako saihesbide zaratatsuaren arteko tarte oso txiki batean kokatua baitago. Ziur gaude beste espazio batzuk daudela, beste lursail hobe batzuk, gazteentzako eta 70 urtetik gorakoentzako zuzkidura-apartamentuak dituzten bi dorre horiek eraikitzeko.

Auzotarrek ez dute ulertzen apartamentuak hain espazio txiki batean eraikitzea, kontuan hartuta partzela hori auzoan beharrezkoagoak diren beste ekipamendu batzuetarako erabil daitekeela, adibidez, anbulatorio bat eraikitzeko. Egin asmo diren dorreek, y “auzoaren harmonia hausten” dute; izan ere, Loiolako Erriberako eraikinak baino bi aldiz garaiagoak dira, eta trafiko handiko errepide baten ondoan kokatuko lirateke; beraz, ez da egokiena 70 urtetik gorakoentzako zuzkidura-apartamentuetarako.

Hori dela eta, hau da gure

## MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari eskatzen dio atzera egin dezala Donostiako saihesbidearen ondoan dagoen lurzatian gazteentzako eta adinekoentzako zuzkidura-apartamentuetarako bi dorre eraikitzeko asmoan.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailari eskatzen dio beste leku bat bila dezala lehiaketaren proiektu irabazlea eraikitzeko.

Donostian, 2022ko otsailaren 4an

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea